

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

4327

AGINDUA, 2014ko irailaren 22koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko itunpeko ikastetxe pribatuetan eskola-kontseiluetako kideak aukeratzeko hauteskunde-prozesua zabaltzen duena.

Urtarrilaren 22ko 7/1997 Dekretuak, urtarrilaren 30eko 10/2007 Dekretuak aldatutakoa, Euskal Autonomia Erkidegoko itunpeko ikastetxe pribatuetan eskola-kontseiluak hautatzeko eta berrituzeko prozesua arautzen du.

Dekretu horiek ezartzen dutenez, ikastetxeetako eskola-kontseiluen erdi biak urte bitik behin berrituko dira, txandaka.

Eskola-kontseiluetako kideen azken hautespena 2012-2013 ikasturtean egin zen eta, beraz, 2014-2015 ikasturteko lehen hiru hilabeteetan egin behar da berrikuntza.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuari dagokio dagokion hauteskunde-prozesua burutzeko epea zabalik dagoela aldarrikatzea. Ondorioz, eman zen 2014ko uztailaren 24ko Agindua, Euskal Autonomia itunpeko ikastetxe pribatuetan eskola-kontseiluetako kideak aukeratzeko hauteskunde-prozesua zabaltzen zuena.

Hala ere, egiaztatu da eskola-kontseiluetako kideak berritzeko hautapen-prozesuan parte hartzeko beharrezkoa dela itunpeko ikastetxe pribatuen hezkuntza-sektoreek bere hautagai-zerrendak betetzeko asti gehiago izatea.

Horregatik bidezkoa da 2014ko uztailaren 24ko aipatutako Agindua indargabetzea eta prozesuaren deialdia egiteko agindu berria ematea.

Hori dela eta, eman zaizkidan eskumenak erabiliz, honakoa

XEDATU DUT:

1. artikulua.– 1.– Euskal Autonomia Erkidegoko itunpeko ikastetxe pribatuetan eskola-kontseiluetako kideak aukeratzeko hauteskunde-epea zabalik dagoela adieraztea.

2.– Hauteskunde-prozesua urtarrilaren 22ko 7/1997 Dekretuak, urtarrilaren 30eko 10/2007 Dekretuak aldatutakoa, Euskal Autonomia Erkidegoko itunpeko ikastetxe pribatuetan eskola-kontseiluak hautatzeko eta berritzeko prozesua arautzen duenak xedatutako moduan egingo da.

2. artikulua.– Hauteskundeak 2014ko azaroaren 24 eta 27a bitartean egingo dira ikastetxe guztietan, eta ikastetxeko Eskola Kontseilu berriak 2014ko abenduaren 19a baino lehen egon beharko du osatuta.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetu egiten da 2014ko uztailaren 24ko Agindua, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko itunpeko ikastetxe pribatuetan eskola-kontseiluetako kideak aukeratzeko hauteskunde-prozesua zabaltzen duena.

2014ko urriaren 16a, osteguna

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Agindu honen aurka berraztertzeko errekurtsua jar diezaiokete interesdunek Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuari, hilabeteko epean. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsua jar dezakete Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epearen barruan. Kasu bietan, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian agindua argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da kontatzen epea.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko irailaren 22a.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.